


Aitaren aita



Hiztegia

Hi egon hadi (**toka**) : aitak
hi erraten dio semeari.

Zu egon zaite (**zuka**) :
semeak aitari zu erraten dio

Hator (**toka**) = Zato (**zuka**)

Erretore jaunak gomiatu zuen Pernando bazkaltzerat. Bainan semeak aitarekin joan nahi zuen. Ez zion bakerik ematen : eremateko eta eremateko. Pernandok nola egingen zuen?

Joan ziren biak apezetxerat eta aitak erran zion semeari:

“-**Hi*** ate gibelean egon **hadi*** nik deitu arte.”

Pernando sartu zen. Erretorea bazkaltzeko prest zen mahaina benedikatzan, bazkal aintzineko otoitza erranez :

“-Aitaren eta Izpiritu Sainduaren izenean, Amen.

-Pernando, gaizki ari zira. “Aitaren” egiten ahantzi duzu ? Ea, has zaite berriz. Pernandok bazakien zertan ari zen eta berriro lehen bezala egin zuen “Aitaren”.

“-Aitaren eta Izpiritu Sainduaren izenean, Amen.

-Eta Semea ?, galdetu zion apezak.

-A, bai ! Arrazoina duzu ! Hi, seme !, deitu zion. Hemen semea behar dute. **Hator*** hunarat!”

Laster joan zen semea aitarenganat eta bere ondoan jarri.

Biek jaten duten lekuan hiruek ere jaten dute.

.....

“**Zu**” hitza erabil ezazu :

Hik, ulertu duk ?

Hik, ulertu dun ?

Errak, hik, zerbeit aditu duk ? **Errazan, hik, zerbeit ulertu dun ?**

Bainan, hi, elkorra haiz edo zer ?

Elkorra haiz edo zer ?

Hi, euskalduna haiz ?

Hi, euskalduna haiz ?

Ez duk deusik erraten ?

Ez dun deusik erraten ?

Ulermena :